



ELGOIBAR, SAN BARTOLOME JAIK 2009

ALKOHOLAREN ERABILERA ARDURATSUA HERRIKO JAIETAN (ALKOHOL TASAREN KONTROLAK)

Abuztuaren 28an, ostirala, 24:00etatik 03:30etara alkohol tasaren frogak egiteko karpabat jarriko da Maalan, Lanbroa ondoan dagoen kioskoaren ondoan, jendearen eskura egon dadin.

Elgoibarko Udaleko Gazteria Saitetik bideratzen den ekimen honen helburu nagusia, arrisku faktoreak gutxitzea eta jaietan alkoholaren kontsumoaren aurrean jarrera eta jokaera arduratsuak sustatzea da.

Interesa duenak, momentu horretan duen alkoholemia gradua zein den jakiteko bertara joan ahal izango du, baldintza bakarra, adinez nagusia izatea izango delarik.

Karpa horretan, alkoholaren gaian adituak diren SASOIA, s.l (osasunerako hezkuntza: drogomenpekotasunen aurrehartzea) elkarteko talde teknikoa izango da eta frogak egin aurretik zenbait datu hartuko dituzte, hala nola; adina, sexua, frogak ze ordutan egin den, pertsona horrek erre al duen (zenbat), jai hauetara etortzeko leku aldaketarik egin duen (nondik eta nola etorri den), ondoren gidatuko al duen eta aurreko 2-3 ordutan edan duen (zer eta zenbat).

Datu hauekin emaitza pertsonalizatuak eman ahal izango zaizkie erabiltzaileei.

Alkoholemia testarekin batera, legearen inguruko informazioa (gehiengoak, karnet puntuak e.a.) eta alkoholari buruzko informazio orokorra emango da (batipat, pertsona bakoitzaren sexua eta pisuaren arabera alkohol gramoak gorputzak botatzeko zenbat denbora behar duen). Informazio hau guztia biltzen duen materiala ere banatuko da.

Ekimen honekin, prebentzioa eta arriskuen gutxitzea uztartzen dira; alkoholemia mailak modu pertsonalizatuan aztertuz, alkoholaren kontsumoan eragin kaltegarriak sortarazten dituzten egoerak identifikatuz, gehiegizko kontsumo baten ondorioak ezagutuz eta aztertuz eta aurrehartzea ahalbidetuz; istripuak, isunak e.a.